

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuak ez du montaje sekreturik izango, azkenean montajearen zati handia gero enpresetan azaldu behar izango dugulako, beraz ez da funtsezko jarduerarik egongo baina ala ere gure ideia, gure gure dron propioak ekoiztea izango da inungo enpresaren laguntzarik gabe. Beste enpresa batzuen beharra materiala erostean izango dugu. Garbiketaren kontuan, lokala garbi mantendu nahi dugunez, garbitzaile bat kontratauko dugu garbitzeko.

Hainbat jarduera garrantzitsu egingo genituen gure negozio ereduak funtzionatzeko, adibidez:

- **Marka Eraikitzea:** Marka sendoa eta nabarmena sortuko genuke, logo bat, koloreak eta estiloa orekatuak. Marka eratzeak lagunduko digu bezeroei gure negozioa gogoratzean.
- **Digitalizazioa:** Online plataforma eta sare sozialak izango genituzke gure negozioa zabaltzeko. Interneten markatuko genituen gure produktuak eta zerbitzuak, eta bezeroekin harremanetan egongo ginateke. Online denda bat ezarriko genuke, baina saldu aurretik erakusketak egindo ditugu, bezeroei dron horiek esplikatzuz edo azalduz (gehienbat enpresei azalduko diegu). Online dendan erosi ahal izateko, bezeroak web orrira sartu beharko dira eta drona erosi ahaliko dute. Dron modelo bakarra dugunez, hori erosi beharko dute.

Gure bezeroak edozein zalantza, konponketa edo aldaketarik behar izanez gero, gu prest gaude beraien beharrak asetzeko. Gure sare sozialen bidez, gurekin azkar kontaktatu eta segituan azalduko gara arazo hori ahalik eta azkarren konpontzen saiatzeko.

Zerbitzua Hobetzeko, dronen erabilera erraza izango duen zerbitzua eskainiko genuke, baina gauza batzuk ez dira beti unean egin behar, prozesuan lan egiten jarraitu behar da eta hobekuntzak eginez joan behar da.